# 3. Oharra: Gipuzkoako egurra

## EDUKI DUINEKO HITZARMEN BATEN ORDUA DA!

Gaur, 2024ko martxoaren 19an, **Gipuzkoako Zuraren Industriaren Hitzarmen Kolektiboaren negoziazio-mahaia osatu da. Altzarien sektorea negoziazioan sartzen saiatu gara**, baina ez dugu gure eskaera babesten duen beste inor aurkitu. 2023ko uztailaren 12an, mahaia osatzeko saiakera bat egin zen, baina ez zen lortu, patronalak adierazi baitzuen "Estatuko hitzarmen bat indarrean dagoela" eta "arazoak egon daitezkeela", eta "patronalari gustatuko litzaioke jakitea zein den (...) enpresen interesa". ADEGIk emandako argudio horiek salatu genituen, joan den uztailean adierazi genuen bezala, arazoa edukiena eta borondatearena delako. Gaurko bileran, ordea, **patronalak onartu du legezko esparru bat sortu behar dela langileek beste sektore batzuetara ihes egin ez dezaten.**

**Azken probintzia-hitzarmena 2001ekoa da, eta 2003an amaitu zen indarraldia; hain zuzen ere, 2003koa da azken soldata-berrikuspena**. Arbuiatzen dugu ADEGIk duela 8 hilabete mahaia osatzeari uko egin izana, sektoreko langileak duela 20 urte baino gehiagoko lan-baldintzekin jarraitzera kondenatuz.

Hala ere, **harritu gaitu patronalak gaur aurkeztu duen proposamena, urteetako isiltasunaren ondoren,** eta sindikatuen plataformak jaso ere egin gabe. Patronalak, besteak beste, 2003tik 2022ra bitarteko tauletan KPIak berreskuratzeaz (atzerapenik gabe) edo 2024-2027 urteetarako KPIaren igoerez hitz egiten du, baina ez du adostutakoa aplikatuko dela bermatzen duen klausularik. Horregatik, negoziazio erreal bat eskatzen dugu negoziazio-mahaian, eta sektorean dugun ordezkaritzaren % 37 errespetatzea.

**Hurrengo bilera apirilaren 9an izango da**, eta espero dugu negoziazioa benetakoa izatea eta sektoreko langileen lan-baldintzak hobetuko dituzten eduki serioak izatea.



**Aktibatu Lortu Zaindu**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

# 3. Nota: Madera de Gipuzkoa

## ¡ES HORA DE UN CONVENIO CON CONTENIDOS DIGNOS!

Hoy, 19 de marzo de 2024, s**e ha compuesto la mesa negociadora del Convenio Colectivo de la Industria de la Madera de Gipuzkoa. Hemos intentado incluir en la negociación al sector del Mueble,** pero no hemos encontrado a nadie más que apoye nuestra petición. El 12 de julio de 2023 se hizo un intento para componer la mesa, pero no se logró porque la patronal afirmó que "hay un convenio estatal vigente" y "que puede haber problemas", y que " a la patronal le gustaría saber cuál es (...) el interés de las empresas". Ya denunciamos estos argumentos dados por ADEGI, porque tal y como afirmó el pasado julio, el problema es de contenidos y de voluntad. En la reunión de hoy, sin embargo, **la Patronal reconoce la necesidad de crear un marco legal para evitar la fuga de las personas trabajadoras a otros sectores.**

El último **Convenio Provincial es de 2001 y terminó su vigencia en 2003; de 2003 es precisamente la última revisión salarial.** Lamentamos que ADEGI se negase a componer la mesa hace 8 meses, condenando a los y las trabajadoras del Sector a continuar con las condiciones laborales de hace más de 20 años.

Sin embargo, también **ha sido sorprendente la propuesta entregada por la patronal hoy, tras años de silencio**, y sin ni siquiera haber recibido las plataformas sindicales. La patronal habla entre otras de recuperación de los IPC-s en tablas desde el año 2003 al año 2022 (sin atrasos), o, de subidas del IPC para los años 2024-2027, pero **sin clausula que garantice la aplicación de lo acordado. Por ello, exigimos una negociación real en la mesa negociadora y que se respete el 37%** de representación que tenemos en el sector.

**La siguiente reunión será el 9 de abril** y esperamos que la negociación sea real y se traduzca en contenidos serios que mejoren las condiciones laborales de las personas trabajadoras del sector.



**Aktibatu Lortu Zaindu**

ELA

EUSKAL SINDIKATUA